

KUBA

Fidel Castrok eskatu bezala, bere gorputza erre egin dute «idolatria» saihesteko

Kuba osoan ez du aurkituko irakurleak Fidel Castro presidente ohia-
ren ohorez altxatutako monu-
menturik edo estatuarik. Ezta
bere izena daraman kale edo he-
rrikerik ere. Uhartearen egiten diren
zigiluak ez da ageri bere iru-
dia eta gauza bera gertatzen da
txanponekin ere. Izan ere, egu-
notan leku askotan goraipatu
den gizakiaren ustez, nortasu-
naren gurtza, lider, buruzagi
edo agintari batenganako giza-
talde batek duen neurrigabeko
eta baldintzarik gabeko atxiki-
mendua, Iraultzak dituen helbu-
ruen kontrakoa da. Askotan
errepikatu zuen ideia zen hori.
Jainko baten irudiari egiten
zaion gurtza da «idolatria» hiz-
tegi entziklopedikoaren arabera,
eta horixe zen Fidel Castro ze-
nak kosta ahala kosta saihestu
nahi zuen fenomenoak.
Raul Castro egungo presiden-
teak azaroaren 25ean bere
anaiaren heriotzaren berri
eman zuenean oso garbi adiera-
zi zuen Fidel Castrok berak eska-
tu zuela bere gorputza errauste-

 **POLITIKA /** joseangel.oria@gaur8.info

Azken mendean makina bat agintari baltsamatu dituzte munduan zehar, baina Fidel Castroren gorpua berehala erre zuten, berak eskatu bezala. Berak askotan esan zuenez, nortasunaren gurtza Iraultzak dituen helburuen kontrakoa da. Egunotan uharte osoa zeharkatu dute iraultzaile handiaren errautsek.

ko. Eta hala egin zuten hurrengo egunean. Ondoren, errautsak Habanako Defentsa Ministerioan jarri zituzten ikusgai, Santiago hiriko Santa Ifigenia kanpo-santura eramango zituen segizioari hasiera eman aurretik. 1.200 kilometro inguru egin dituzte egunotan errautsek.

MILAKA URTE DITUEN JOERA

Beraz, Fidel Castroren gorputza ez dute baltsamatu eta ezin izango dute erakutsi mausoleo ikusgarri batean, zenbait agintari komunistarekin egin izan den moduan. Komunismoarekin ze-

rikusirik izan ez duten hainbat agintarirekin ere gauza bera egin izan da azken hamarkadotan, orrialdeon beheko aldean ikus daitekeenez.

Buruzagien gorputza betikotzeko –edo ahalegintzeko bederen– joera hori ez da atzo goizekoa, milaka urte baititu.

Egiptoko IV. dinastiaren garaian (K. a. 2630ean hasi eta K. a. 2500 inguruan amaitu zen) asko garatu zen faraoiak baltsamatzeko teknika. Aditu batzuek diote ordurako gaur egungo Txileko iparraldeko itsasertzean bi-
zi izan zen Chinchorro herriak

denbora asko zeramala bere hildakoak momifikatzen, horretarako teknika artifizialak erabili-ta.

Edonola ere, Egiptoko faraoiek egin zituzten eraikinak dira guztioi burura etortzen zaizkigunak, momiak aipatzean. Eta horien artean Ramses II.arena da ezagunena.

K. a. 1213an zendu zen Ramsesek patu bitxi bat izan zuen, euskarazko Wikipediak esplikatzaren duenez. Bere bizitza oso luzea izan zen –iturri batzuek dio-te ia ehun urte egitera iritsi zela, baina beste batzuek 87 urterekin zendu zela esaten dute–, eta bera baino lehen bere seme-ala-ba asko hil ziren. 66 urteko erregealdi baten ondoren hil zen eta Erregeen Haranean lurperatu zuten.

Bere momia 1881ean aurkitu zuten: agure batena da, aurpegi luzanga eta sudur handikoa. Bizirik zegoela 190 zentimetroko altuera izan zuela kalkulatu du-te adituek. Inongo zalantzarik

gabe, azken faraoi handia izan zen. Gaur egun Kairoko museoan dago ikusgai. Gerora, bere oinordekoen gainbeherak Egiptok bere mugetatik kanpo zuen boterearen amaiera ekarriko zuen.

Egiptoarrek jainkotzat zituzten faraoiak eta Fidel Castrok gida-tutako Iraultza «gizaki apale-na» zen. 1961ean, Cochinos badiako inbasioa gertatu aurretik, honakoa esan zuen kubatar agintariak: «Hau apalen, apale-kin eta apalenzat egindako Iraultza sozialista eta demokra-tikoa da. Berarengatik bizitza emateko prest gaude».

CHIAPARDIREN ESKULTURA

Hori esan eta gero, nola onartu Fidel Castro bera herritarrek jainkotzat hartzea? Egunotan hedabide batzuek aipatu dute 1959an Italiako Enzo Gallo Chia-pardi eskultoreak iraultzailearen eskultura bat egin zuela, matxinoek Fulgencio Batista diktadorea kargutik kendu on-doren. Castrok eskultura hura suntsitzeko agindu zuen eta on-doren hartu zuen bizirik dau-den gizakien izena goratzeko ez monumenturik ez kale izenik ez

Azken mendean baltsamatutako agintariak

LENIN, 1924

Vladimir Ilitx Ulianov «Lenin» 1924ko urtarrilaren 21ean hil zen. Errusiar iraultzailea, boltxebike alderdiaren burua, Sobietar Batasunaren lehen idazkari nagusia eta leninismo izeneko ideologiaren sortzailea izan zen. Bera eta bere ondokoak sobietar agintaria-ren gorputza baltsamatzearen aurka-koak baziren ere, Josiv Stalinek erabaki




zuen momifikatu eta Moskuko Plaza Gorrian eraikitako mausoleoan gorde-tzea, eta ikusgai jartzea.

SUN YAT-SEN, 1925

Txinako Errepublikako lehen presiden-tea izan zen Sun Yat-Sen eta 1925ean hil zen. Garaiko agintariak bere gorpu-tza baltsamatu nahi zuten eta sobieta-rrei eskatu zieten laguntza (Leninen esperientzia oso ona iruditu zitzaien), baina Moskuk ezetz esan zien. Teknika propioa garatu behar izan zuten txina-tarrek. Gaur egun Nankin hiriko mau-soleo batean dute.

EVA PERON, 1952

Maria Eva Duarte de Peron «Evita» Eva Maria Ibarguren izenarekin jaio zen. Argentinatar aktore eta politikari nabarmena izan zen. Peronismo izenaz ezagutzen den mugimendu politikoko eragile nagusia izan zen 1940ko eta 1950eko hamarkadetan, eta giza



eskubideen aldeko ekintzaile garrantzitsua. Lurjabe handiek osatutako oli-garkiaren, pobreziaren eta desberdin-tasun ekonomikoaren aurka, eta langi-leen, emakumeen eta babesgabeen eskubideen alde egin zuen borroka nagusiki. 1952ko uztailaren 26an hil zen. Hil-kapera batean ikusgai eduki zuten Buenos Aires hiriburuan, bere senarrak 1955ean agintea galdu zuen arte. Italian ezkutuan ehortzi zuten


aurrena, 1976an familiak hiriburuan zuen hilobian sartu zuten arte.

STALIN, 1953

Josiv Vissarionovitx Jugaxvili «Josiv Stalin» Sobietar Batasunaren bigarren buruzagi gorena izan zen, Leninen ondoren. 1953ko martxoaren 5ean hil zenean, bere gorputza baltsamatu eta Leninen mausoleoan jarri zuten. Baina Nikita Khrustxovek abian jarritako desestalinizazio kanpaina zela-eta, bertatik atera zuten 1961ean. Mausoleoaren atzeko aldean dagoen kanposantu txiki batean ehortzita dago.

KENNEDY, 1963

John Fitzgerald Kennedy Ameriketako Estatu Batuetako 35. presidentea izan zen eta karguan zela atentatu batean hil zuten Dallas hirian 1963ko azaroa-ren 22an. AEBetako beste presidente askorekin egin duten moduan (lehen



Usermaatra Setepenra-Ramses Meriamon, alegia, Ramses II.a Egiptoko XIX. dinastiako hirugarren faraoia izan zen eta 66 urte inguruko erregealdia izan zuen. Irudian, Ramses II.aren tenplua Abu Simbelen.
GAUR8

onartzeko erabakia. Iraultzaren Legea deitu zion debekuari. Lege horren arabera, Adminis-trazioko bulegoetan agintarien argazki ofizialak jartzea ere de-bekatuta geratu zen. Hurrengo hamarkadetan eskainitako elka-rrizketetan askotan esplikatu zuen erabaki haren arrazoa. «Bizirik dagoen inongo pertso-na famatu iraultzailearen aldeko gurtzarik ez dago», adierazi zuen 2003an. «Herrialdea zu-zentzen dutenak gizakiak dira, ez jainkoak». Beraz, ulertzekoa da Castrok bere gorputza erretzea nahi zue-la esatea. Edonola ere, Iraultza-ren Legeak dio «bizirik dauden

Jainko baten irudiari egiten zaion gurtza da «idolatria», hiztegi entziklopedikoaren arabera, eta horixe zen Fidel Castro zenak kosta ahala kosta saihestu nahi zuen fenomeno

Chiapardi eskultoreak iraultzailearen eskultura bat egin zuen, matxinoek Batista diktadorea kargutik kendu ondoren. Castrok eskultura hura suntsitzeko agindu zuen

eta ondoren), bere gorputza gantzutu zuten, baina ikusgai jarri gabe.

HO CHI MINH, 1969
Ho Chi Minh poeta, politikari eta iraultzai-le vietnamdarra izan zen, eta Ipar Vietnamgo presidente 1954 eta 1969 urteen artean. Garaiko Hego Vietnamgo hiriburu zen Saigonek Ho Chi Minh Hiria izena hartu zuen bere ohorez. Berak eskatu zuen hiltzean gorputza erre eta



errautsak Vietnam osoan sakabanatzeko, baina 1969ko irailaren 2an zendu ostean ez zioten jaramonik egin eta gorputza baltsamatu egin zuten. Hanoi hiriburuko mausoleo batean (munduko handiena omen da) daukate Vietnamgo iraultzaile-aren gorputza. Hil zenean AEBen aurkako gerra bukatu gabe zegoenez, bost urtez eduki zuten oihanean ezkutatuta.

MAO ZEDONG, 1976
Mao Zedong Txinako Alderdi Komunistaren buruzagia eta Txinako Herri Errepublikako presidentea izan zen. 1976ko irailaren 9an hil zen eta bere gorputza baltsamatu egin zuten, Pekingo Tian'anmen plazan bera goratzeko eraiki-tako mausoleoan ikusgai jarri aurretik. Kristalezko sarkofago batean sartuta dute. Kasu honetan Pekinek ez zion Moskuri laguntzarik eskatu, txinatarrek vietnamdar adituek Ho Chi Minh baltsa-matzeko Sobietar Batasunean ikasi zituz-ten teknikak erabili zituzten-eta.

FERDINAND MARCOS, 1989
Ferdinand Edralin Marcos politikaria eta diktadorea izan zen. Filipinetako Errepublikako lehendakari izan zen 1965etik 1986ra. Hauteskundeetan 1965ean Errepublikako lehendakari aukeratu zuten, eta 1969an berriro, bozketak irabazita. 1972an, ordea, dik-tadura ezarri zuen Filipinetan, Mindanaoko musulmanen matxinadaren



kontra borrokatzeko aitzakia hartuta. 1989ko irailaren 28an hil zen erbeste-an, AEBetako Hawain. Bertan familiak dituen lurretan dagoen sarkofago bate-an dago ikusgai.

KIM IL-SUNG, 1994
Kim Il-sung Ipar Koreako buruzagi komu-nista izan zen 1948tik 1994ra. Ipar Korean, ofizialki, Aitzindari Handia izen-datzen dute eta, Konstituzioaren arabera, Betirako Presidentea da. 1994ko uztaila-ren 8an hil zenean baltsamatu zuten, gorputza Kumsusan jauregian ikusgai jar-tzeko.

KIM JONG-IL, 2011
Kim Il-Sung hil zenean, Kim Jong-il seme-ak Korear Langileriaren Alderdiko lehen-dakaritza eta, horrenbestez, estatuburu-tza hartu zituen. 2011ko abenduaren 17an hil zenean, bere gorputza gantzutu eta jauregi berean jarri zuten ikusgai, aitaren ondoan.



gizakien» izena goratzeko monumentuak ez direla onartuko, baina Fidel dagoeneko hilda dagoenez, ezin da baztertu aurki bere izena eramango duen kale, herri edo nazioarteko aireporturen bat izatea Kuban. Egungo agintariei dagokie erabakia.

Fidel Castroren aldekoek haren umiltasuna nabarmendu dute egunotan, aurkakoek harroputz hutsa zela errepikatzen duten bitartean.

TXARTELTXOA ETA KOILARA

Armando Garcia Hondurasko idazlea aldekoen artean dago. Prensa Latina Kubako agentziari kontatu dionez, 1970eko hamarkadan Habanan egin ziren topaketa batzuetan agintariarekin egoteko aukera izan zuen.

Gogoan du eztabaidaren erdian Fidelek aretoa uzten zuela zigarroren bat erretzeko. Guztiekin hitz egiten zuen: Yemenetik edo Palestinatik joandakoekin bezala, Latinoamerikako edozein herrialdekoekin.

«Gurekin hitz egin ondoren, arratsaldeko bostak zirela, bere

ondoan zuen lagun bati esan zion hobe izango zela bertan zerbait jatea eta jan ahal izateko txarteltxoa erostera joan ziren –gogoratzen du idazleak–. Guztiok eskaini genion geure txarteltxoa, baina ezetz esan zigun, eskaintza eskertu ondoren. Eta bere txarteltxoa erosi zuen, gainerako guztiek egiten genuen moduan. Jangelara iristean lau lerro handi osatuta zeuden eta zain egotea tokatu zitzaigun. Errenkadan aurrera egiteko aukera askok eskaini zioten, baina berak bertan segitu zuen. Azkenean bere janaria

Fidel Castroren aldekoek haren umiltasuna nabarmendu dute azken egunotan han eta hemen; aurkakoek, oster, harroputz hutsa zela errepikatzen dute

Vicente Fox Mexikoko presidente ohiaren ustez, kubatarrari umiltasuna falta izan zitzaion uhartean «diktadurak» jarraitzerik ez zuela onartzeko

Habanako Defentsa Ministerioan jarri zituzten ikusgai errautsak, Santiago hiriko Santa Ifigenia kanposantura eramango zituen segizioari hasiera eman aurretik. 1.200 kilometro inguru egin dituzte egunotan errautsek. Argazkia asteazkenean Habanan egindakoa da. Ronaldo SCHEMIDT | AFP

eman ziotenean, labanak eta tene-doreak agortuta zeuden. Koi-lara bat eman zioten. Bi yemen-dar, bi argentinar eta kolonbiar bat zeuden mahaian eseri eta bertan jan zuen. Gertaerak oso ondo deskribatzen du zein punturaino zen apala Fidel. Horregatik, lur hauetan esker oneko pertsona askoren gogoan beti bizirik izango dugu».

«BAZKALDU ETA ALDE EGIN»

Fidel Castroren aurkakoen iritziz, aldiz, harrokeria zen hildako agintariaren ezaugarrietako bat. Horrela esan berri du Vicente Fox Mexikoko presidente ohiak. Bere ustez, kubatarrari umiltasuna falta izan zitzaion uhartean «diktadurak» jarraitzerik ez zuela onartzeko.

2002ko martxoan Mexikoko Monterrey hirian egin zen Garapenerako Finantziazioari buruzko Nazioarteko Konferentzian esku hartzera gonbidatu zuen Kofi Annan NBEko garaiko idazkari nagusiak Castro. Segurtasun kontuak zirela-eta (ehunka atentatu ahalegin egin dira zen-

dutako presidentearen aurka), kubatarrak ez zuen konfirmatu bertan esku hartzeko asmoa azken ordura arte. Fox anfritioari ez zitzaion batere gustatu Castro bertan izatea eta Habanara deitu zion telefonoz. Esplikatu zion bere presentziak arazo ugari eragiten zizkiola, baina ez azaltzeko eskatzera ausartu gabe. Castrok gogorazti zion Annanek gonbidatu zuela, eta Mexikoko presidenteak ezin duela horren aurkako erabakirik hartu. Azkenean, irakurleak Interneten erraz aurkituko duen bideo batean entzun daitekeenez («comes y te vas» esaldia erabili behar da bilaketarako), bi agintariak adostu zuten Kubako presidenteak Annanen hitzaldia entzungo zuela, berea eskaini aurretik, gero elkarrekin eta beste estatuburu guztiekin bazkalduko zutela eta ondoren Kubara itzuliko zela. Foxen kezka zen Castrok adierazpen potenteak egingo zituela, eta George W. Bush AEBetako presidentearekin topo eginez gero egoerak esku artetik ihes egingo ziola.